ABENDU-ALDIKO I. DOMEKEA – A
ANUNCIAR-IRAGARRI:
SER PORTADORES DE LA BUENA NOTICIA DE JESÚS

SARRERAKO OHARKIZUNA

Egun on, kristau batzar honetara etorri zareen guztioi:

Abendualdia esperantza aldia dogu. Salbatzailea jatorku eta zuhur egoteko deia dogu gaurkoa.

Adviento: tiempo cargado de esperanza, nos preparamos para celebrar con gozo el nacimiento de nuestro Salvador.

Durante este adviento nos proponemos entrar en la dinámica del VI PLAN DE EVANGELIZACIÓN, que nos llama a ANUNCIAR el mensaje salvador de Jesús allí donde nos encontremos, en casa, en la iglesia, en la calle, en el trabajo…

Gaurko ospakizuna izan bekigu, geure barruak berotzeko, indar-barritzeko eta Jaunak emon deigula berari jarraitzeko gogo bizia.

Hasi gaitezan "Zatoz, Jauna..." abestuz.

ABADEAREN AGURRA

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

ABENDUKO KOROAREN LEHENENGO KANDELEAREN INGURUAN

Con el gesto de encender cada domingo una nueva vela, queremos reflejar nuestra progresiva preparación para recibir la luz de la Navidad. Por eso, hoy, primer domingo de Adviento, encendemos la vela verde de la esperanza.

Lehenengo kandelea biztu, abestiaren bat abesten dan bitartean.

Zatoz, Jauna! Gaur zai duzu mundua,
zori gaitzez hain da hondatua!
Zatoz, Jauna! Zabal, otoi, zerua:
Etor bedi zure erreinua!

Zatoz Jauna! Nausi bait da dirua:
jendea maiz dauka zapaldua.
Entzun, Jauna, behartsuen oihua:
Etor bedi zure erreinua!

DAMU OTOITZA

Isiltasunez, Jaunaren aurrean, bere grazia, maitasuna eta parkamena eskatzen deutsaguz.

—Gure bizitzan bide barri bat zabaltzera zatozan gure anaia: ERRUKI, JAUNA.

—Behartsuei Barri Ona emotera zatozan itxarondako Mesias: KRISTO, ERRUKI

—Gizadiaren itxaropen guztiak betetzera zatozan Jaungoikoaren Semea: ERRUKI, JAUNA.

HITZAREN LITURGIA

Is 2, 1-5:

Isaias profeteak etorkizunari itxaropenez begiratzera dei egiten deusku. Gizartean bakea nagusituko dan eguna etorriko da.

La Palabra va a nacer entre nosotros. Somos peregrinos de la paz. Los hambrientos de la paz, los destructores de las armas y constructores de la nueva Jerusalén encontrarán al Señor.

Erantzun-Salmoa: 121. Salmoa

Israeldar fededunak, Jerusaleneko eleiza nagusira joaten ziran pazko jaietan. Pozez beterik bat egin daigun otoitz honetan.

Al orar con este salmo, recordamos la peregrinación de la Iglesia a la Jerusalén del cielo

Zure etxera goaz Jauna, hauxe da poza daukaguna

¡Qué alegría cuando me dijeron:
«Vamos a la casa del Señor»!
Ya están pisando nuestros pies
tus umbrales, Jerusalén. R.

Allá suben las tribus,
las tribus del Señor
según la costumbre de Israel,
a celebrar el nombre Señor;
en ella están los tribunales de justicia,
en el palacio de David. R.

Desead la paz a Jerusalén:
«Vivan seguros los que te aman,
haya paz dentro de tus muros,
seguridad en tus palacios». R.

Por mis hermanos y compañeros,
voy a decir: «La paz contigo».
Por la casa del Señor, nuestro Dios,
te deseo todo bien. R.

Erm 13, 11-14:

Jauna gure artera etorriko da; baina guk, geure aldetik, bidera urten behar deutsagu. Abendu-aldiak gure bizikerea eta sentikerea aldatzea eskatuko deusku.

El apóstol Pablo nos invita a tomar conciencia del

momento en que vivimos. En medio de la oscuridad, debemos permanecer vigilantes.

Mt 24, 37-44:

Domeka honetako ebanjelioak, beste behin, Jesusen azken etorrerea aitatuko deusku. Eta, gitxien uste dogunean izango dan egun horren aurrean, zuhur egotera dei egiten deusku.

Jesús nos llama a la vigilancia. Dios puede venir a nuestra vida en cada instante. No podemos caer el la rutina de una fe vivida sin entusiasmo y sin comprometernos.

"Aleluia" abestu dagigun.



Homiliaren amaieran:
Ezaugarria: IRAGARRI-ANUNCIAR

Abenduaren kolorea da
eliz barruan morea,
seigarren plana aitzaki dala
bertso sorta dotorea
orlegi, hori, urdina, gorri,
hona gure kolorea
laurok batuta plan bakarra da
hazi behar dan lorea.

Abenduaren lehen domekan
Gabon ez da urrunegi,
mila kolorez margoztu daigun
etxe, eliza, lantegi.
Ez iragarri gure burua:
Jesus dogu gure egi,
Berak jarriko danon barruan
esperantzaren **orlegi**.

HERRI OTOITZA

Gizateria osoaren pozak eta itxaropenak, tristurak, larrialdiak eta gurariak geure eginik, Jaungoikoari aurkezten deutsaguz, uste osoz otoitz egiten dogula.

—Eleizaren alde, Jaunaren etorreraren zain egonaz, Salbatzera datorren Jesus gehiago ezagutzeko bideak erabili

dagizan eta itxaropen sortzaile izan daiten. Eskatzen deutsugu, Jauna.

—Txirotasuna, zuzentasunik eza, gogorkeria edo bazterketa gogorra jasaten dabenak ez dagiela itxaropena galdu, eta guk etsipen hori gainditzen lagundu deiegula. Eskatzen deutsugu, Jauna.

—Por las personas jóvenes de nuestras parroquias y movimientos; para que estén siempre abiertas a Dios, y escuchen su llamada a vivir al servicio de los valores del Evangelio. Eskatzen deutsugu, Jauna.

—Por quienes formamos parte de esta comunidad cristiana; así como para poder vivir es necesario alimentarnos, para conocer mejor a Jesús y seguir sus huellas, necesitamos leer el evangelio y orar. Que durante este adviento tengamos la capacidad de dedicar todos los días un rato. Eskatzen deutsugu, Jauna.

Gure Aita, entzun egizu zure herriaren eskaria. Ez egiguzu itzi zure bidetik aldentzen. Bizi gaitezala beti zuhur, zure Semearen etorrerea itxaroten. Errege bizi da-ta gizaldi eta gizaldi guztietan.

JAUNARTZEAN

Zatoz, Jauna, zatoz lurrera zure herri hau salbatzera.

[1] Bakea ta justizia bialdu mundura, Jauna;
zure jaiotzak gugana bekar poza, zoriona.

[2] Okerretatik zuzendu, gaitz bideetatik aldendu,
gure kateak apurtu, bide ilunak argitu.

[3] Gorroto-bideetatik aldendu gagizuz, Jauna;
alkar parkatu dagigun emoiguzu maitasuna.

JAUNARTZE ONDOREN

Jaunartze ondoren izaten dan isiluneari bere esangurea emon gura jakonean, honako hau irakurri daike, astiro astiro.

Ven, Señor Jesús, y transforma nuestros corazones.
Haznos signo vivo de tu presencia,
testigos tuyos en este mundo que tanto te necesita.
Que siempre nos atrevamos
a proclamar tu palabra que consuela,

a prestarte nuestras manos para la justicia,
a compartir y prolongar tu amor que libera.
Por la fuerza de tu Espíritu, ¡ven, Señor Jesús,
y siembra tu esperanza en nuestros corazones!

AZKEN AGURRA

Jaungoikoa gure artera etorri nahian dago. Itzi deiogun etorten eta prestau deiogun bidea. Mariak lagunduko deusku eginkizun honetan.

Dios ha venido, viene y vendrá. A nosotros nos toca hacerle presente en nuestra vida, para que el mundo sea una casa para todos.

ZATOZ, JAUN MAITALEA, BIZIAREN ITURRIA, MESIAS JAUNGOIKOA: ZATOZ!, ZATOZ, JAUNA!

Entzun eizu gure mina, bai otoitza, bai negarra,
entzun kristauen ezina.